

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

**2015/2016 ikasturtea**

**MUSIKA HAUR HEZKUNTZAN: TALDE EKIMENERAKO BIDEA**

**Egilea: Mireia Iturrospe Guillen**

**Zuzendaria: Miren Josu Arriolabengoa Igarza**

**Leioan, 2016ko Maiatzaren 31an**

**EGILEAREN ONIRITZIA**

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
1. Marko teorikoa .....	5
1.1. Haur Hezkuntzako 2. Zikloko umeak.....	5
1.2. Haurra bere garapenaren protagonista.....	5
1.3. Hezitzailearen rola.....	6
1.4. Musika Haur Hezkuntzan .....	7
1.5. Gure Hezkuntza sistema.....	9
2. Metodologia .....	9
3. Lanaren garapena .....	10
3.1. Errealitatearen azterketa.....	10
3.2. Esku-hartzea.....	12
3.3. Esku-hartzearen bilakaera.....	16
3.4. Emaitzak.....	16
4. Ondorioak.....	17
5. Erreferentzia bibliografikoak .....	18
<b>ERANSKINAK</b> .....	<b>20</b>
1. eranskina. Haur Hezkuntzako tutore biri egindako elkarrizketa .....	21
2. eranskina. Behaketa taulak.....	22
3. eranskina. Balorazio taula.....	28
4. eranskina. Jardueren taulak.....	30
5. eranskina. Jardueren argazkiak.....	50

## Musika Haur Hezkuntzan: talde ekimenerako bidea

Mireia Iturrospe Guillen

UPV/EHU

Lan honetan, Elorrioko Txintxirri Ikastolako Haur Hezkuntzan aurrera eraman den musika esku-hartze bat aurkezten da. Ikastetxean, etapa honetan planteatzen ari diren berrikuntza prozesua eta gelako errealitate konkretua kontutan izan dira musika hezkuntzako arloa indartu nahian. Lanaren helburua musika klaseko egunerokotasunean integratzeko baliabideak eskaintzea da. Horretarako, jarduera multzo bat eskaintzen da non baliabide ezberdinen bidez musikaren arlo diferentek lantzen diren eta gai ezberdinekin lotzeko aukera ematen duen. Esku-hartze hau burutu ondoren baieztatu ahal izan da musika jardueren bidez umeen arreta eta talde ekimenetarako gaitasunak areagotzen direla.

*musika hezkuntza, Haur Hezkuntza, talde ekimena, arreta gaitasuna*

En este trabajo se presenta una intervención realizada en Educación Infantil desde el área de música en la ikastola Txintxirri. Se ha partido del proyecto de innovación pedagógica en el que está inmersa la escuela, así como la realidad concreta del aula. El objetivo principal ha sido el de ofrecer recursos para impulsar la utilización sistemática de la música. Se han planteado diversas actividades integradas en los centros de interés globales a partir de los que se trabaja en el aula. Tras esta intervención se constata que a través de actividades musicales aumenta la capacidad de atención y de trabajo en equipo.

*educación musical, educación infantil, iniciativa de grupo, capacidad de atención*

In this work an intervention, carried out in Txintxirri Ikastola in Infant Education from the music area, is presented taking as a starting point the pedagogic innovation project the school is involved and the concrete reality of the classroom. The main objective has been offering resources to boost the systematic use of the music. Different activities have been planned integrated in the global interests the classroom works. After the intervention it has been verified that through music activities the attention span and the group work are increased.

*musical education, infant education, group initiative, attention ability*

## Sarrera

Behin baino gehiagotan aipatu izan da musikak duen eragina pertsonengan eta ondorioz hezkuntzan txertatzea ezinbestekotzat jo da. Haur Hezkuntzako eremua hain zabala izanik, ez du ziurtatzen musika era programatuan landuko denik. Baliteke, ahotsean oinarritutako jarduerak egitea baina musika ahotsa baino zerbait gehiago da eta behar beharrezkoa eremu guztiak lantzea.

Egoera horri erantzuteko esku-hartze hau sortu da Elorrioko Txintxirri Ikastolako bost urteko gelan, non, klasean musika egunerokotasunean erabiltzeko estrategiak eskaini eta programazioa aberasteko asmoa bultzatu den. Dena ondo antolatzeko, haurren ezaugarriak, Ikastolaren ezaugarriak, musikaren garrantzia eta hezkuntza sistema honetan beharrezkoa den dokumentua kontutan hartu dira. Arlo teorikoari buruzko informazioa lortzeko, elkarrizketa semi-egituratuak eta behaketa zuzenak egin dira. Eta ondoren, jasotako informazioaren arabera esku-hartzea planteatu da. Aurrera eraman ostean, jasandako birmoldaketa azaltzen da eta amaitzeko ondorioak.

Horretaz gain, kontuan izan behar da Elorrioko Txintxirri Ikastola berrikuntza prozesu batean murgilduta dagoela, beraien marko pedagogiko propioa eratzen daudelarik. Proiektu berritzaile honetan, Ikastolen elkarteko bost Ikastolak parte hartzen dute, Mondragon Unibertsitatearen laguntzaz. Eta hortaz, esku-hartze hau proiektu berritzaile horren parte izan da.

Hortaz, lan honen helburua, berrikuntza proiektu horretan musikaren presentzia ugaritu nahi izan da, betiere egunerokotasun baten barruan.

## 1. Marko teorikoa

### 1.1. Haur Hezkuntzako 2. Zikloko umeak

Adin tartean honetako garapena hainbat autorek aztertua izan da. Korrante Kognitibistaren barruan Piaget aipa dezakegu ezagunenaren artean. Autore honen esanetan, bi eta bost urte bitarteko haurrak aurre-operazio etapan daude eta horregatik, ekintza mentalak egiten hasteaz gain izaera egozentrikoa dute.

Konstruktibismoaren barruan, Bruner-ek ikuspegi soziala landu du. Honek ere, haurren garapeneko etapak zehaztu ditu. Bere sailkapenaren arabera, lehenengo etapan, manipulatioa deitzen duena, haurrak manipulazio bidez errealitatea ezagutzen joaten da; bigarrean, irudiaren etapa deritzona, aurreko etapan manipulazio bidez ezagututakoaren irudikapena islatzen du adierazpen grafiko bidez eta azkenik, etapa sinbolikoan hitzen bidez ezagupenaren kontzientziaren azalpena agertzen da.

### 1.2. Haurra bere garapenaren protagonista

Eskola berriaren ostean hezkuntzaren planteamendu berriak eraikitzen joan ziren. Haurrari buruzko kontzepzioa aldatu zen, izan ere, haurra bere garapenaren eraikitzaile bezala begiratzen hasi zen. Ordutik proposamen berriak jorratzen joan dira eten gabe.

Hainbat autorek planteatu dute umeari testuinguru aproposa eta baliabide anitzak eskaintzearen egokitasuna, besteak beste, Maria Montessori, Rudolf Steiner, Emmi Pikler eta Loris Malaguzzi.

Maria Montessoriren pedagogiaren arabera, umeari manipulatzeko materialak eskaini behar zaizkio. Lopez Goñi-k (2005, 21-22. orr.) bere pentsamendua jasotzerakoan oinarrien artean umeak “material zehatza manipulatzeko bideratuko dituzte ezagutzak [...] zentzumenak landuz ezagutzak bideratzeko bideak zabaltzen direlako” aipatzen du. Bestalde haurrari askatasuna ematea ezinbestekoa dela ere badiot: “garapena gerta dadin askatasuna beharrezkoa da, auto-hezkuntza bat izan dadin”. Azkenik, adin desberdinetako hurrekin loturak ezartzea ezinbestekotzat jotzen du “zenbait adinetako haurrak gela berean biltzean, besteekiko eta ikastearekiko estimulazioa handitzen da”.

Waldorf pedagogian material naturalen erabilera oinarritzat jotzen da. Moreno-k (2010, 207.orr.) pedagogia hori azaltzerakoan, “Los maestros y maestras Waldorf profundizan en el amor innato que posee el niño y la niña hacia la naturaleza para que pueda convertirse en un sólido fundamento en el ámbito científico y en la relación práctica con la naturaleza” dio.

Emmi Pikler-en korrante pedagogikoan ere material naturalen erabilera oinarritzat jotzen da eta objektu sinpleen manipulaziori garrantzia ematen zaio. Hau da, egunerokotasunean erabiltzen direnak eta aukera anitz ematen dituztenak. Horregatik:

Los materiales han de fomentar la creatividad del niño en el sentido de que le inviten a experimentar todas las posibilidades que le ofrecen. Es de esta forma que el niño va aplicando diferentes estrategias en su manipulación de los mismos para hallar respuestas variadas a sus propios planteamientos. (David eta Appell, 2010 25. or.)

Pikler-entzat beste printzipio bat, haurren autonomia da, izan ere, David eta Appellek-kin batera adierazten duenez (2010, 27. or.) “moverse por iniciativa propia se traduce en motivación del niño por experimentar de forma constante y mediante el juego libre con las posibilidades que le brinda su propio cuerpo repercutiendo favorablemente en su capacidad de aprendizaje autónomo”.

Loris Malaguzzi pedagogoaren kasuan, haurren gaitasunetan sinestea planteatzen du oinarritzko ideia bezala. Cabanellas eta Hoyuelos-ek (2005, 111. or.) Malaguzziri buruzko egindako artikuluan honen inguruan aipatzen dutenez umeak “Ezagutzeko, sortzeko eta errespetatzeko gaitasunak ditu eta horiek eraikitzen ditu”.

### **1.3. Hezitzailearen rola**

Haurra bere ikasketa prozesuaren protagonista dela kontuan izanda, irakaslearen zeregina testuinguruak eskaintzea eta baliabideak ematea da, haurren garapen prozesuan laguntzeko.

Bertatik abiatuz, Vayer, Duval, eta Roncin-ek (1993, 9-10. or.) testuinguru ekologiko kontzeptuaz aritzerakoan “gizabanakoak daukan inguruko baldintzen arabera bere gaitasunak modu ezberdinean agertzen ditu. Hemendik abiatuz umea eta inguruaren arteko interakzioak testuinguru ekologikoa eratzen dute” diote.

Lan egiteko modu hau ikerketa-akzioarekin erlaziona daiteke. Latorrek (2003, 7. or.) ikerketa-akzioa honela azaltzen du: “Esta propuesta considera la enseñanza como investigación y a la persona docente como investigadora de su práctica profesional [...] con el fin de conseguir mejorar la calidad de la educación”.

Honetaz gain, proposamen didaktikorako ideiak Urtxintxa Proiektutik hartzen dituzte, adibidez gai bakoitzaren oinarria ipuina izatea eta bertatik abiatuz jarduerak prestatzea. Eta gaiei dagokionez, momentuko gertaerekin lotzen dituzte errealitatearekin bat egiteko.

#### **1.4. Musika Haur Hezkuntzan**

Umeak txikitatik jasotzen dituen estimulak anitzak dira. Bolaños-ek (2005,33 or) dion bezala “Desde los primeros meses el niño se interesa en las fuentes que emiten sonidos, permanece atento, disminuye su actividad o voltea hacia donde proviene el sonido”. Hortaz, umeek jasotako soinu estimuluen arabera erantzungo du. Ondorioz, musikak ere umearen garapenean eragina duela esan dezakegu.

Fernández-ek (2009) dion bezala “musikak izaera harmonikoa eratzen laguntzen du, gaitasun guztiak estimulatu”. Díaz-ek (2004) ere gaitasunen garapenaz aritzerakoan zehazten du “musikaren bidez gaitasun anitz lantzen direla, hala nola, memoria, entzumen bereizketa, arreta, sinkronizazioa, parte hartzea eta talde zentzua lantzea”. Beste autore batzuek ere ahalmenen garapenerako musikaren eraginkortasunaz aritzen dira:

Constituye un elemento clave a la hora de descubrir y tomar contacto con el mundo que les rodea, de desarrollar su percepción auditiva, de comunicarse y socializarse, de usar su imaginación y desarrollar su creatividad, de expresar lo que no pueden decir con palabras y también una fuente inagotable de placer” (Alsinak, Díazek eta Giráldezek, 2008,13 or.).

“Musika hezkuntzak gaitasunen garapenarekin lotura estua du, izan ere, bizitza osoan behar izango dituzten gaitasunak garatuko dituzte, hala nola, autodisiplina, pazientzia, sentsibilitatea, koordinazioa...” Alsin-ak et al. (2008, 14.or.).

Ezinbestekoa da musika Haur Hezkuntzan lantzea, eta horrela mintzatzen da Delalande (1995:9) “ Lo que deseamos para la escuela es comenzar, en jardín de infantes [...] por sensibilizar a los niños a la música”. Ildo honi jarraituz, musika eskolan modu egokian planteatzerakoan, Díaz-en (2009) esanetan lau esparru bereizi behar dira: “[...]”

entzumena, ahotsa, instrumentuak eta erritmoa. [...] Izan ere, hauen bidez, musikaren adierazpen, pertzepzio eta sorkuntza lantzen dira.”

Hauen artean entzumenaren garapena bereziki garrantzitsua da Cabezas-ek (2009) dion bezala harremanen oinarrian dagoelako eta onura anitz ekartzen dituelako.

Entzumen gaitasuna gizakiaren inguruarekin zein pertsonekin harremanetan jartzeko ezinbestekoa da. Uneoro erabiltzen dugun gaitasuna da, gure munduarekin interakzioan egoteko. [...] Alde batetik, entzumenaren hobekuntzak gaitasun sensoriala hobetzea dakar eta honek aldi berean, pertzepzio, kognitibo eta ikaskuntzarako trebetasunak estimulatu ditu. Bestetik, matematikarako gaitasuna garatzen laguntzen du kuantifikazio eta espazio-denbora lantzen direlako musikaren bidez. Honetaz gain, gorputzaren kontrola hobetzen laguntzen du. Horretaz gain, irudimena garatzeko ezinbestekoa da entzumena. Amaitzeko entzumen ahalmenak, arreta mantentzen laguntzen du, [...] besteenganako errespetua jarrera egokia izatea ahalbidetzen du. (Cabezas, 2009,2-3 or.)

Musikarekiko harremanean entzumena jatorrian dago eta horregatik Ana Isabel Fenández-en (2009) hitzetan, “hezkuntza musikalaren oinarria da, izan ere, ezinezkoa da musikaren barneratze zein praktika modu egokian bideratzea entzumena lantzen ez bada.”

Ahotsari dagokionez Haur Hezkuntzan lantzeko abestia baliabide erabiliena da. Izan ere, Muñoz-en (2001) aburuz “abesterakoan, haurren soinu aberastasuna handitzen da”. Honetaz gain, autore honen ustetan: “Sentsazio eta emozio berriak sentitzen dira, eta abestean hauek azalertzeko aukera ematen du; [...] gainera, desinhibizioa ahalbidetzen du, integrazioa eta elkarbanatzearekin batera”. (Muñoz, 2001.)

Instrumentuen lanketaren kasuan Akoschky-k (2008, 71-72. or.) dionez, “haurrentzako oso erakargarria da instrumentuekin soinuak eratzeko eta [...] adierazpen baliabide gisa erabiltzen dituzte”.

Horretaz gain, Ana Maria Porcel-en (2010, 5. or.) ustez, “instrumentuen bidez haurrek gaitasun erritmikoa garatzen dute, eta horrekin batera gaitasun sozialak, hala nola, talde arauak errespetatzea, elkarrekintzan jardura bat burutzea eta parte hartze aktiboa”.

Aipatzekoa da, Akoschky-k (2008, 79.or.) baieztatzen duela “instrumentuen erabilerak bide asko zabaltzen dituela musika jardueretan.” Izan ere, haurrei esploratzeko aukera anitz eskaintzen zaizkie.

Instrumentu mota desberdinak erabil daitezke: egunerokotasunean erabiltzen diren materialekin asmatutakoak (kotidiafonoak), eskolan erabiltzen diren instrumentu



txikiak (klabeak, kutxa txinatarra...) eta bestelako ohizkoak diren instrumentuak (gitarra, pianoa edo teklatu elektrikoa e.a.).

Azkenik, erritmoaren lanketari dagokionez, Porcel-ek (2010, 4.or.) dioen bezala “erritmoa mugimenduari lotuta dago”. Horretarako baliabide egokia dantza izango litzateke onura anitz baititu. Adibidez, Arriolabengoak (2000, 5.or.) honako hauek nabarmentzen ditu: arlo psikomotorra eta soziala. Autore berarekin jarraituz, Arriolabengoak (2000, 5or.) dio “dantzaren bidez norberak sentitzen duena adieraz daiteke, besteekin komunikatuz, imajinatuz eta sortuz”.

### **1.5. Gure hezkuntza sistema**

Gure hezkuntza sistemaz jarduteko Euskal Autonomia Erkidegoko Haur Hezkuntzako curriculumak kontuan izan beharra dago. Izan ere, dokumentu honek barnean hartzen ditu haurren karakteristika psikologikoak, korrante pedagogiko desberdinen ezaugarriak eta irakasleak jarduteko erak. Honetaz gain, musika arloa ere kontutan hartzen du “*Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena*” atalean eta bertan lortu beharreko helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak zehazten dira *arte hizkuntza* blokearen barruan.

Hortaz, esku-hartze hau aurrera eraman ahal izateko ezinbestekoa izan da dokumentua eskura izatea.

## **2. Metodologia**

Lan hau aurrera eramaterakoan hainbat pausu aurrera eraman dira.

Hasteko, Txintxirri ikastolako Haur Hezkuntzako proiektu berritzaileri lehen hurbilketa egiteko, praktiketara joan aurretik Ikastolan bertaratu eta irakasleei elkarrizketa semi-estrukturatu bat egin zitzaion.

Ondoren, elkarrizketatik jasotako oinarri pedagogikoen eta beraien musika planteamenduaren inguruko informazioan sakontzeko bibliografia bilaketa burutu da. Informazio guzti honekin, lan honen marko teorikoa eraikitzen joan da.

Honekin batera, zuzeneko behaketa egiteko irizpideak finkatu eta horretarako txantiloia prestatu da.

Gero, Ikastolan praktika garaia hasi denean, zuzeneko behaketak egin dira. Musika klaseari dagokionez, lehenengo hilabetean zehar egin ondoren, hau beste bi astez

luzatu da informazio nahiko lortu ez delako. Bestalde, egunerokotasunean musikaren erabileraren behaketa bi hilabete inguruan burutu da.

Behaketen emaitzak ikusirik, hasieran ziklo osorako esku-hartzea egiteko asmoa bazen ere, azkenean bost urteko gelarako planteatzea erabaki da eta hortaz, 20 umez osatutako taldearentzat diseinatu da.

Ondoren, esku-hartzea praktikara eraman eta ebaluatu da. Aspektu ezberdinak ebaluatzeko umeen iritziak jaso dira, tutorearen ikuspegia elkarrizketa bidez jaso da eta nirea idatziz erregistratu dut. Azkenik esku-hartzearen planteamendua ebaluatzeko irakasle eta nire ebaluaketak elkarrekin fusionatu dira. (3. eranskinean ageri dira)

Bukatzeko, lortutako emaitzak aztertuz ondorioak atera dira.

### **3. Lanaren garapena**

Esku-hartzea Txintxirri ikastolako 5 urteko gelan aurrera eraman da. Txintxirri Ikastola Elorrion kokatuta dago eta Ikastolen federazioko partaide da. Bertan eskaintzen den eredua D eredia da eta Ikastola txikia izan arren, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarainoko ikasleak elkartzen ditu.

Bost urteko gelari dagokionez hogeit hamar ume daude, zortzi neska eta hamabi mutil. Horietatik, bostek jatorri kanpotarra dute eta euskara errefortzua jasotzen dute astean lau egunez. Talde honen izaera oso dinamikoa da.

#### **3.1. Errealitatearen azterketa**

Haur Hezkuntzako planteamendu metodologiko berritzaile hau aztertzeko eta egunerokotasunean musikaren erabilera nola lantzen den behatzeko, baliabide nagusi bi erabili ditut. Alde batetik, elkarrizketa, non Ikastolako Haur Hezkuntzako tutore biri elkarrizketa semi-estrukturatu egin zaie. Eta bestetik, zuzeneko behaketa, non egunerokotasunean zein musika orduan musikaren erabilera nolakoa den behatu diren. (Ikus. 1. eta 2. eranskinak)

Baliabide horietatik jasotako informazioa ugaria izan da. Alde batetik, Ikastolen federazioko Haur Hezkuntzako proiektu pilotu batean murgilduta daude. Hau da, berrikuntza proiektu bat aurrera eramaten ari dira beraien planteamendu pedagogikoa birplanteatzen daudelarik. Horretarako, hainbat korrante pedagogiko aztertu, Montessori, Waldorf, Pikler eta Malaguzzi besteak beste, eta bertatik abiatuz beraien

planteamendua eraikitzen joan dira. Ondoren, beraien errealitatean praktikara eramaten dute eta ateratako ondorioekin marko pedagogikoa birplanteatzen dute.

Ziklo ikuspegi orokorra nabaria da eguneroko dinamiketan. Alde batetik, eguneroko errutinetan bigarren zikloko haur guztiak leku berdinetik sartzen dira, harrera gelatik. Bertan, Ikastolako egoerara eta girora moldatzeko, zapatak erantzi eta etxeko zapatilak eta amantala janzten dituzte. Ekintza hori goizean zein arratsaldean gertatzen da, etxetik heltzean eta etxera joaterakoan zein patiora irtetean, alderantzizko prozesua egiten da, kaleko arropa jantzi. Guzti honek, ziklo osoko haurren arteko elkarrekintza egotea ziurtatzen du, izan ere, momentu horretan adin desberdinetako haurrak elkarrekin egoten dira.

Bestalde, gelak elkar konektaturik daude, hau da, harrera gelatik hasita, hiru, lau eta bost urteko gelak ondoz ondoan daude. Hauen ateak zabalik egoten dira haurrak Ikastolara sartu eta lehenengo ordu erdian, nahi duten espazio eta materiala erabil dezaten. Momentu horretan, barruko patioa ere erabili daiteke baina araua bete behar da, ezin da barruko materiala atera. Denbora tarte honek ere, elkarren artean elkarrekintzak egotea ahalbidetzen du.

Horretaz gain, denbora kudeaketari dagokionez, ziklo honetako haurrek Lehen Hezkuntzakoekin alderatuta patio ordua luzeagoa dute. Eguraldiaren arabera gehiago luzatzen da baina orokorrean, besteek baino hogeit hamar minutu gehiago jolasten dute patioan. Arratsaldeari dagokionez, ordu erditik gora jolas librea izaten dute eta kanpoko patioa irteten dira ona eginez gero, eguraldi txarra egiten badu aldiz, barruko patioan egoten dira.

Bestetik, marko pedagogikoa eratzeko frogaketa ezberdinak aurrera eramaten ari dira ikerketa-akzioan oinarrituz. Hots, lehenengo haurrari testuinguru ekologikoak eskaintzen zaizkio, ondoren, haurraren erantzunaren arabera hiru eremu ebaluatzea planteatzen dute: espazioa, irakaslearen kudeaketa eta materiala. Ebaluazio hori aurrera eramateko, behaketa zuzenaren bidez jasotako informazioa taula batean ordenatu ostean, hori aztertu eta eremu ezberdinetan antzematen diren premien arabera, aldaketak planteatzen dituzte. Planteamenduaren oinarrian bi ardatz daude haurraren autonomia bultzatzea helburutzat dutelarik. Ardatza hauek haurra eta testuinguruaren arteko harremana eta irakaslearen jarrera behatzailea dira. Irakasleak

ariketak zuzenean gidatu beharrean umeen ekintza ahalbidetzeko guneak eraikitzen ahalegintzen da.

Hala eta guztiz, badaude irakaslearen gidaritzapean aurrera eramaten diren jarduera proposamen konkretuak, batez ere, ipuina oinarritzat hartzen dutenak. Hauek Urtxintxa Proiektutik jasotakoak dira. Errealitate hurbileko gaiak (udaberria, gorputza...) interes zentro gisa hartuz ere jarduera proposamenak egiten dira, modu irekian bada ere.

Musikaren presentziari dagokionez, ordutegian astean ordu erdiko saio bi zehaztua egon arren ez da errespetatzen. Bestalde, programaketan ez dago islatuta nahiz eta momentu ezberdinetan bat batean abesteko jarduera inprobisatuak aurrera eraman.

### **3.2. Esku-hartzea**

Musika eta talde handiko jarduera koordinatuen presentzia indartu nahian esku-hartze bat planteatu da. Musika adierazpen ekimena aurrera eramateko ezinbestekoa da ikaskideak koordinatzea eta horretarako erreferentzia bateratua, hau da, irakaslearen gidaritza behar-beharrezkoa da. Bestalde, ezinezkoak dira musika adierazpen ekimen indibidualak elkar oztopatuko liratekeelako.

Esku-hartzearen helburu orokorra, musika klaseko egunerokotasunean integratzeko baliabideak eskaintzea izan da. Horretarako musikaz gozatzea, soinuaren parametroak lantzea, adierazpen modu desberdinak ezagutzea eta haurren parte hartzea sustatzea planteatu dira helburu zehatz gisa.

Hasiera batetan, Ikastolako Haur Hezkuntzako 2. zikloko funtzionamendu bateratua errespetatu nahian, ziklo osorako esku-hartzea planteatu zen. Errealitatearen azterketa egin ostean, ezinezko zela baieztatu zen musika saioak ez zirelako modu sistematikoan aurrera eramaten; ordutegi ofiziala ez zen jarraitzen eta saioak tarteka burutzen ziren momentuaren arabera. Hortaz, azkenean esku-hartzea bost urteko gelan planteatzea erabaki zen.

Bilakaera hau dela eta hasieran pentsatutakoa baino beranduago eraman zen aurrera. Esku-hartze hau lau astetan zehar aurrera eramateko planteatu zen. Dena den, esku-hartzea aurrera joan hala, irakaslearen arrera ona eta eskakizun berriei erantzuteko, luzatu eta proposamen berriak gehitu zitzaizkion.

Jardueren bilakaeran hiru fase desberdin daitezke. Aurreneko fasea klasean lantzen ari ziren *gorputza* gaiarekin lotuta, bigarrena *gorputza* gaiari bukaera emateko gurasoentzat ikuskizunaren prestaketa eta hirugarrena *udaberria* gairekin lotutako jardueraz osatua.

Jarduerak oro har lau ezagutza-eremuetan banatu dira: entzumena, ahotsa, instrumentuak eta erritmoa. Jakintza-arlo guzti hauen praktika egunez egun, modu jarraian aurrera eraman da trebetasunak pixkanaka eskuratzen joateko. Ondoren modu laburrean ezagutza-eremu bakoitzean landutako jarduerak aurkezten dira (informazio gehiago 4. eta 5. eranskinetan):

### Entzumena

1. Jolasa: *aurkitu musika kutxa eta non daude txintzarriak?*

Soinu iturria lantzeko, haurrak gelatik atera eta gelan musika kutxa ezkutatu da. Beraiek sartu orduko, kutxa aurkitu behar dute. Hainbat aldiz errepikatu ostean, begiak amantalaz estali eta gelako izkina batean txintzarriak astinduz soinu iturria aurkitu behar dute.

2. Jolasa: *zein soinu egingo dute?*

Soinuaren parametroak ezagutzeko txintxinak, triangelua eta panderoa gelara ekarri dira eta beraien soinuei ezker, altuera, tinbrea, intentsitatea eta iraupena landu dira. Behin begi bistaz identifikatuta, begiak itxi eta instrumentu bat jotzen da eta hurrek antzeman behar dute.

3. Udaberriaren soinuak:

A. Vivaldi-ren *Udaberria* pieza musikalaren entzunaldia musikograma baliabidea erabiliz.



1. irudia: musikograma lantzen.

## Ahotsa

### 1. Jolasa: *Noren ahotsa da hau?*

Besteen ahotsak ezagutzeko jolasa da. Makinista, eguneko gelako arduraduna, zutik ikaskideei bizkarra emanez jarri, ondoren, edozein ikaskideri hitz egiteko eskatu eta bukatzeko makinistak nor den asmatu behar du.

### 2. Jarduera: *Siyahamba abestia ikasten*

Abesti afrikar bat ikasteen datza. Horretarako lehenengo irakasleak pultsoa markatuz abestu hainbat aldiz. Poliki-poliki keinuak sartu dira hitz batzuk ikasi arte. Ondoren, abestia entzun da eta imitazioz errepikatu da. Jarduera hau hainbat egunetan egin da.

## Instrumentuak

### 1. *Kotidiafonoak sortzen:*

Hainbat egunetan egunerokotasuneko objektuetatik kotidiafonoak sortu dira, kaskainetak eta marakak. Horretarako, aste bat lehenago materiala ekartzeko eskatu zitzaaien haurrei (kartoia, txapak, jogurt poteak).

### 2. *Instrumentuak ezagutzen:*

Marko teorikoan esan bezala, aberasgarria da beste instrumentu batzuk ezagutzea eta horretarako, egun bitan, eskura izan diren instrumentuak ekarri dira, hala nola, gitarra, txirula, zampoña, triangelua, klabeak, kutxa txinatarra, tinbala, bongoa, teklatua eta kristalezko botilak.



2. irudia: instrumentuak probatzen.



3. irudia: instrumentuak probatzen.

## Erritmoa

### 1. *Egin ditzagun erritmo batzuk:*

Erritmo errazen lanketa gorputz perkusioa erabiliz.

## 2. *Probatu ditzagun instrumentuak:*

Sortutako kotidiafonoak eta tinbalak gehituz, elkarrizketa erritmikoak sortu.

Jarduera gehienak jakintza arloka planteatu badira ere ikuskizuna antolatzerakoan jakintza arlo ezberdinak bateratu eta integratu dira.



4. irudia: instrumentuak probatzen.

Jardueraz jarduera ebaluaketa jarraia egin da zuzeneko behaketa bidez eta tutorearen ikuspegia jasoz. Horretarako ea haurrak parte hartzen duen, ea ezagutzak barneratzen hasi den, eta ea musikaz gozatzen duen kontutan hartu dira. Honen arabera beharrezkoak izan diren birmoldaketak planteatu dira hurrengo jarduerari begira.

Bukaeran haurren lorpenak eta balorapena jasotzeko klasean bertan elkarrizketa eran galderak egin zaizkie. Musikaren kontzeptuaz ulertzen zutena eta gustukoekin zituzten jardueraz galdetu zitzaizkien.

Irakasleari ere azken galdeketa egin zaio erabilitako baliabideen egokitasunaz eta musikak eskaintzen dituen ekarpenen inguruan. Esku-hartzea ikusi ondoren Haur Hezkuntzan musika erabiltzearen inguruan bere ikuspegia eskatu zaio.

Horretaz gain, nire planteamendua ebaluatu dut. Alde batetik, nik burututako esku-hartzearen planteamendua. Jardueren sekuentzia lau eremuetan banatu da eta landu den lehena entzumena izan da beharrezkoa baita musika barneratzea eta gero adieraztea. Gainera, jarduerak elkar osagarriak izan dira eta horietan erabilitako materiala ez da apartekoa izan, eskura daudenak erabili dira. Bestalde, gaiarekiko lotura baloratu da, non *Horrelakoa naiz* proiektuan norbere gorputzaren ezaugarriak lantzen direnez, entzumenak, ahotsak gorputza instrumentu gisak eta mugimenduak zuzeneko lotura duten. *Udaberria* gaiarekin lotutako obra musikala aukeratu da eta

urtaro horretan gertatzen diren fenomenoak azaldu dira. Hortaz, esku-hartzea eta gaiarekiko lotura erreala izan da.

Diseinatutako jarduera guztiak burutu dira eta planteatutako helburuak bete direla esan daiteke. Oro har, erantzun positiboa jaso da haurren eta irakaslearen partetik.

### **3.3. Esku-hartzearen bilakaera**

Hasiera batez, momentu horretan lantzen ari ziren gaia (Horrelakoa naiz!) eta musikaren artean loturak ezartzea zen asmoa, hau da, gaia landu hala musika inguruko jarduera txikiak egitea. Lehenengo jarduerak horrelakoak izan ziren, *Horrelakoa naiz* (norberaren gorputza ezagutzen) gaiaren inguruan jorratu ziren. Proposamen hauek aurrera eraman hala, abesti baten lanketarekin hasi ginenean, ikasleen partetik eskakizun bat sortu zen: abesti honekin gurasoen aurrean aurkezteko ikuskizun bat antolatu nahi zuten. Tutoreak oniritzia eman zuen eta azkenean, jatorriz musika pintzelada batzuk zirena, *JAMBO!* izeneko proiektua bilakatu zen. Hortaz, abestiaz gain erritmo-elkarrizketa eta dantza gehituz, gurasoen aurrean aurkezteko ikuskizun bat sortu zen. Gurasoak gonbidatuak izan ziren eta proiektua espero baino gehiago luzatu zen arren, apirilaren amaieran egin zen ikuskizuna. Guzti horrek, hainbat jarduera gehiago inplikatu zituen, jantziak eta lepokoak egin, gonbidapenak idatzi e.a.

Dena den, hasierako lehenengo asmoa alde batera utzi gabe, *Udaberria* gaia lantzen hasi zirenean, A. Vivaldi-ren “Udaberria” obra landu genuen musikograma erabiliz. Horrela, gaiarekin eta musikarekin lotura zuzena zuen jarduera egin zen.

### **3.4. Emaitzak**

Proiektu hau praktikan jarri eta gero esan daiteke musikarekiko harremana areagotu eta estutu dela bost urteko gelan. Harreman hori jolas eta jarduera askoren bidez lortu da. Izan ere, planteatutako sekuentzian hasteko entzumena landu da, musika barneratzeko lehen urrats moduan; gero, musika adierazpena bideratu da ahotsa, instrumentuak eta erritmoen bidez.

Bestalde, aipatu beharra dago irakasle-tutoreak inplikazio handia agertu duela. Jarduerak aurrera eramaterakoan, bere irudimena eta esperientzia aprobetxatzeko aukera izan da.



Hemen planteatu diren jarduerak, etxean zein eskolan aurkitutako instrumentu eta materialekin burutu dira, beraz, ez da eragozpenik izan jarduerak planteatzeko.

Bestalde, taldean sarri ematen diren gatazkak proiektu honen bidez gutxitu eta talde lana edo talde ekintza sortzea lortu da. Hau da, ikasleek elkarrekin ekintza berdina uztartzen ahalegindu dira eta elkarrekiko errespetuzko jarrera agertu dute. Musika entzunaldia aurrera eramanean denek ikasleek arreta jarrera agertu dute eta ondorioz gelako giroa eta haurren jarrera aldatzea lortu da.

Proiektuaren birmoldaketa haurren iradokizunetatik abiatu da. Alde batetik, “gurasoen aurrean egiteko ikuskizuna” planteatzeak, inplikazioa indartzea suposatzen du, bata besteari lagunduz eta parte hartzera bultzatuz. Beste aldetik, beraien balorazioaren ondorioz, gustuko izan duten jarduerak berreskuratu eta beste ekitaldi bat burutzea ahalbidetu du. Hortaz, haurren ekarpenak kontutan izanda, proiektua arrakastatsua izan dela esan daiteke. Dena den, lorpenak izan badira ere, sakondu ahal izateko denbora luzeagoan eta modu sistematikoan lantzearen premia sumatu da.

#### **4. Ondorioak**

Lan hau egin ostean, hainbat ondorio atera daitezke.

Alde batetik, posible da musika adierazpenak talde jardueretan aurrera eramatea. Nahiz eta adin honetan haurra etapa egozentrikoan murgildurik egon eta horregatik oraindik sozializazio gaitasunak guztiz garatu gabe egon, musikak hori erraztu egiten du. Haurren helburua, ikuskizuna egitea izanik, elkarrekin adierazpena aurrera eramanean nahia horiek, besteekiko errespetua eta koordinaketarako jarrerak izatera bultzatzen du. Beste era batera esanda, ikasle guztien inplikazioa ezinbestekoa izan da proiektua aurrera eramateko eta horretarako elkar laguntza eman eta parte hartzera bultzatu dira.

Ildo beretik, talde ekintza aipatzean behar beharrezkoa da esatea musika adierazpen ekintzak modu bateratuan aurrera eramateko gidari bat izatea premiazkoa dela. Izan ere, gidariaren eginkizuna erreferentziak eskaintzea da, irizpide bateratuak eta koordinaketa posible egiteko, azken finean, adierazpen ekintza kanalizatu ahal izateko. Aurreko ondorioarekin lotutik, kontuan izan behar da, ezinbestekoa dela talde adierazpena kudeatzerako orduan, aurretik aldetik erreferentziak ematea ikasleen parte

hartzea ordenatzeko. Izan ere, honen bidez, bakoitzari bere gunea eskaintzeko aukera ahalbidetzen da.

Bestalde, “haurrak musikaz gozatzea” helburua bete da, hau da, umeeek musika ekimenekin gozatu egiten dute eta ondorioz hau beraien familiekin konpartitzeko gogoaz azaltzen dute. Eta hori argi eta garbi ikusi da ikuskizuna egiteko proposamena beraiengandik irten zelako.

Esku-hartze honekin, musika entzunaldi aktiboak planteatzeak isiltasuna eta arreta jarrera bultzatzen dituela ondorioztatu da. Honen ondorioz gelako giroa lasaitu eta xamurragoa egiten da. Eta hori baieztatu ahal izan da entzunaldiaren jardura proposatu denean, haurren jarrera eta gelako giroa aldatzea lortu delako musikaren bidez.

Aipatzekoa da, tutoreak agertu duen planteatutako musika baliabideekiko interesa etorkizunari begira. Abestia eta dantzaz gain, musika lantzeko beste proposamen mota batzuen aukera eraiki da, hala nola, erritmoak, soinuen diskriminazioa e.a. lantzeko proposamenak.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Akoschky, J. (2008). Las actividades musicales. J. Akoschky, P. Alsina, M. Díaz, & A. Giráldez en, *La música en la escuela infantil* (or. 37-100). Barcelona: GRAÓ.
- Arriolabengoa Igarza, M.J. (2000). La danza en la escuela. Sección española de la sociedad internacional de educación musical. (or. 5-8). Altea
- Bolaños, M. C. (2005). Aprendiendo a estimular al niño: Manual para padres y educadores con enfoque humanista. México: Limusa.
- Cabanellas, I. eta Hoyuelos, A. (2005). Loris Malaguzzi. I.Lopez-Goñi eta A.Uribe-Etxeberria an, *Pedagogo sortzaileak* (or.111-113) . Donostia: XANGORIN.
- Cabezas Gallardo, A. (2009). La educación auditiva en educación infantil. *Innovación y experiencias educativas*. 16, 1-2, 2016-05-11an berreskuratua: [http://www.csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_16/ALBA\\_CABEZAS\\_1.pdf](http://www.csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_16/ALBA_CABEZAS_1.pdf)
- David, M., Appell, G. (2010). *Lóczy, una insólita atención personal*. Barcelona: Octaedro

- Delalande, F. (1995). *La música es un juego de niños*. Buenos Aires: Ricordi Americana. SAEC.
- Díaz, M. (2004). La educación musical en la etapa 0-6 años. *Aula de infantil*, 16. 2016-05-11an berreskuratua: <http://www.grao.com/revistas/aula-infantil/016-hacer-musica-con-los-mas-pequenos/la-educacion-musical-en-la-etapa-de-0-6-anos>
- Fernández, A. I. (2009). Didáctica de la música. La expresión musical en la educación infantil. La música en el aula. *Innovación y experiencias educativas*, 15, 2016-05-11an berreskuratua: [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_15/ANA%20ISABEL\\_FERNANDEZ\\_1.pdf](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_15/ANA%20ISABEL_FERNANDEZ_1.pdf)
- Latorre, A. (2003). *La investigación-acción conocer y cambiar la práctica educativa*. Barcelona: Graó
- Lopez-Goñi, I. (2005). María Montessori. I. Lopez-Goñi eta A. Uribe-Etxeberria an, *Pedagogo sortzaileak* (or. 20-21). Donostia: XANGORIN.
- Moreno, M. (2010). Pedagogía Waldorf. *Arteterapia. Papeles de arteterapia y educación artística para la inclusión social*, 5, (or 203-209). 2016-05-11 an berreskuratua: <https://revistas.ucm.es/index.php/ARTE/article/viewFile/ARTE1010110203A/8751>
- Muñoz, J. R. (2001). La voz y el canto en la educación infantil. *Eufonia*, 23.
- Porcel Carreño, A. M. (2010). El ritmo en la educación musical. *Innovación y experiencias educativas*, 35, 2016-05-11an berreskuratua: [http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod\\_ense/revista/pdf/Numero\\_35/ANA\\_MARIA\\_PORCEL\\_1.pdf](http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_35/ANA_MARIA_PORCEL_1.pdf)
- Vayer, P.; Duval, A., Roncin, CH. (1993). Una ecología de la escuela. *La dinámica de las estructuras materiales*. Barcelona: Paidós

Aipatutako Legedia:

12/2009 DEKRETUA, urtarrilaren 20koa, Haur Hezkuntzako curriculumaz zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituenak. EHAA.

ERANSKINAK

## 1. Eranskina: Haur Hezkuntzako tutore biri egindako elkarrizketa

- *Ikastolan eta zehazki Haur Hezkuntzan proiektu berritzaile batekin hasi zarete; honezkerok, lehen zikloa martxan dago eta bigarrenarekin hasi zarete. Zuen marko pedagogiko propioa eraikitzen zaudete, eta horretarako, hainbat oinarri pedagogiko aztertu dituzue. Gainera aipatuta, zeintzuk izango ziren korrante pedagogiko horiek?*

Kontuan izanda, “haurra bere ikasketa prozesuaren jabe dela” ideia nagusitzat dugula, Pikler, Montessori, Reggio Emilia (Malaguzzi) eta Waldorf dira landu ditugun korrante pedagogikoak. Honetaz gain, Urtxintxa proiektutik ere ideiak hartzen ditugu.

Gure marko pedagogikoa eratzten gaudenez, goian aipatutako autoreetatik ideia desberdinak jaso eta gure testuingurura egokitzen ditugu, hala nola, material naturala erabiltzea, haurren autonomia bultzatzea, adinen arteko lotura... eta guzti hori, testuinguru ekologikoak eskainiz egiten dugu. Ondoren, haurrak ebaluatu beharrean, espazioa, irakaslearen esku-hartzea eta materiala ebaluatzen ditugu. Horren arabera, hiru atal horiek egokitzen ditugu.

- *Marko pedagogikoa eraikitzen zaudeten bitartean, nondik abiatzen zarete programazioa egiteko? Zein oinarri erabiltzen dituzue?*

Beste ikastola batzuekin batera eta Mondragon Unibertsitatearekin elkarlanean gure marko pedagogikoa eratzeko, behaketak egin zieten eta hortik ondorioztatutako guztiarekin marko pedagogiko orokor bat eraiki dugu. Horretatik abiatuz eta goian aipatutako korranteak kontuan hartuta, gure markoa eraikitzen goaz, eguneroko behaketekin taula baten betez.

- *Musikari dagokionez, asteen birritan izaten duzue tartetxoa. Nola antolatzen duzue zer egin? Programazioarekin bat dator?*

Programazioaren arabera abesti bat aukeratzen dugu eta hori abesten dugu guztien artean. Baina orain dela gutxitik aldaketak egitea dugu helburu. Adibidez, urte osorako bost bat abesti aukeratu (tradizionala edo haur kantak) eta hauekin dantzak egitea nahi dugu baina hori egiteko prozesuan gabiltza. Bideoak ikusi, boluntario etortzen den emakumeari kontsultatuz e.a.

**2. Eranskina:** Behaketa taulak

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 1			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/02/2	Ordua: 16:00	Tokia: 4 urteko gela	Iraupena: 30 min
Ikasle taldea: HHko bigarren zikloa	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Otsailaren 4a, Eguen Zuri eguna ospatuko dugu ikastolan. Ospakizuna, kaletik abestuz izango da eta horretarako aste batzuk lehenago astearte eta ostegunetan abestia entseatzen egon dira.</p> <p>Lau urteko gelan haur guztiak bildu eta lurrean eseri dira. Dinamizatzailleak, sarrera eman du eta haurrak abesten hasi dira "Eguen zuri" abestia musikarekin batera.</p> <p>Lau aldiz errepikatu ostean, amaitutzat eman dute saioa.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Haurrak egun batzuk entseatzen daramatenez eta onez gero badakitenez abestia ez da beharrezkoa askotan errepikatzea.</p> <p>Haur guztiek ez dute jarrera bera, batzuek hasieratik amaiera arte abesten egon dira, beste batzuk lehenengo aldiak soilik abestu dute. Gainera abesti bakarra denez, haurrak aspertu aurpegiarekin egon dira denbora tarte horretan.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 2			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/03/10	Ordua: 16:00	Tokia: 4 urteko gela	Iraupena: 30 min
Ikasle taldea: HHko bigarren zikloa	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Hurrengo asteko ostegunetan langile ohi baten agurra antolatu dute eta bertan Haur Hezkuntzako haurrek abesti bat abestea erabaki dute irakasleen artean. Abestia, Izarren hautsa da eta asmoa da saio bitan haurrek ikastea.</p> <p>Abestia entzun aurretik, dinamizatzailleak behin abestu du musikarekin batera, eredu gisa. Gero, bertsoka banatu du eta behin eta berriro errepikatu ditu.</p> <p>Haur batzuek imitazioz eta musika entzunez hainbat hitz errepikatu dituzte. Baina askok (batez ere hiru urtekoak) oraindik ez dute letra zatitxoak ikasi.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Abestia oso luzea da haurrek saio bitan ikasteko horregatik, tutoreek lehenengo bi estrofa ikastea erabaki dute. Beraz, hurrengo saioan, soilik lehen estrofa irakatsiko zaizkie.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 3			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/03/15	Ordua: 16:00	Tokia: 4 urteko gela	Iraupena: 30 min
Ikasle taldea: HHko bigarren zikloa	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Ostegunerako abestia prestatu behar da, hortaz, lehenengo dinamizatzailleak abestu du eta haur batzuek abeste jarraitu diote. Ondoren, musika martxan ipini eta guztiok batera abestu dugu adostu bezala, lehen bi estrofak.</p> <p>Lau bider errepikatu dugu eta haur gehienek ikasi dutenez, amaitutzat eman dugu saioa.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Nahiz eta haur guztiak (60 dira guztira) estrofa biak ez jakin orokorrean gehienek badakite eta horrekin burututzat eman dute musika saio hauek biak. Aste Santuko oporren ostean, zerbait berria egitekotan gelditu dira, dantzaren bat edo beste zerbait.</p>			

Gelan egindako behaketak:

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 4			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/02/15 eta 17	Ordua: 11:00	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 15 min
Ikasle taldea: 5 urteko gela	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Data bi hauetan gelako ikasle biren urtebetetzea denez, patio ordua heltzean ikaskide guztiak eta irakasleek abestu diogu abesti bi.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Egun berezi hauetan, abesti bi abesten zaizkie haurrei, hortaz ahotsaren bidez musika lantzen da.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 5			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/02/17	Ordua: 11:45	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 20 min
Ikasle taldea: 5 urteko gela	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Patio ostean, jolas bat egitea erabaki dugu, “kanika txikia” jolasa. Jolas honen bereizitasuna, kanika ezkutatzea da. Bost aldiz jolastu dugu baina abestia soilik tutoreak eta nik abestu dugu.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Aurretik abestia ezagutzen zuten arren ez dute haur guztiek abestu. Jolas honen bereizitasuna dela eta, haurren arreta kanikan zegoen eta ez abestian, hortaz ez zuten abesten arreta beste leku batean zutelako.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 6			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/03/7	Ordua: 15:20	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 10 min
Ikasle taldea: barruko patioa	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Jolas librean daudenez tutoreak jolas bat proposatu du, “A le ti bo”. Abesti baten bidez, dinamizatzaileak, kasu honetan tutoreak, konsigna bat ematen du, adibidez, borobilean daudenez, ondokoaren belarrietatik heltzea. Orduan abestia abesten den bitartean, belarritik helduta mugitu behar dira borobilean.</p> <p>Ingelesera joateko ordua heldu denean, jolas hori aprobetxatu du bost urteko haurrak bildu eta ingelesera eramateko.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Berriro ere, ahotsaren bidez eta gorputz mugimenduaren bidez musika lantzeko aukera izan dute hurrek.</p>			



BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 7			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/02/23	Ordua: 16:25	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 5 min
Ikasle taldea: harrera gela	Zikloa: 2	Etapas: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Haurrak irteteko ilaran jarri behar dira eta lehenak txikiak izaten dira irteten, gero lau urtekoak eta azkenik bost urtekoak. Gaurkoan bost urtekoak lehenago prest egon direnez, tutoreak agurtzeko abesti bat abestu die txaloekin pultsoa markatuz. Horrela, haurrak ilaran mantendu dira eta txaloei jarraitu diete.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Oraingoan ere, ahotsa izan da protagonista abestia honetan. Hala ere, txaloen bidez musikaren osagai bat, pultsoa, landu du.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 8			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/04/12	Ordua: 11:45	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 20 min
Ikasle taldea: 5 urteko gela	Zikloa: 2	Etapas: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Asteburuan ikastolak mendi irteera bat antolatu duenez, ibilbidean abesteko abesti bat ikastea proposatu du tutoreak. Urtxintxa 5 urteko "abestiak 9" CDa hartu eta Euskal Mendietan abestia martxan jarri du.</p> <p>Haurra eserita egon dira lurrian eta bitartean tutorea eta biok liburuxka hartu eta letra abesten egon gara musikarekin batera.</p> <p>Bigarren aldia zutik ipintzeko esan die eta berriro abestu dugu. Hirugarren aldia egin behar genuela, hurrengo abestia martxan hasi da (harri kozkor batekin) eta hurrek bazekitenez hori abestu dugu dantzarekin.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Abesti bat barneratu nahi bada, egokiena mugimenduarekin edo keinuekin laguntzea</p>			

da, letra eta keinuak bat egitean errazago ikasten dutelako. Bigarren aldian egin beharrean hasieratik mugimendua sartu ezker, keinuak ikasiko dituzte eta ondoren letrarekin loturak egiteko aukerak handituko lirateke.

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 9			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/04/15	Ordua: 11:45	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 20 min
Ikasle taldea: 5 urteko gela	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Berriro ere tarte librea dugunez eta asteburuko irteera kontuan izanik, asteartean ikasitako abestia.</p> <p>CDa martxan ipini eta ekintza bera egin dugu, tutorea eta biok abestu eta guztiak jarrita. Bigarren aldian, zutik ipini dira eta berriro ere abestu dugu baina estribiloan keinuak gehiago markatu ditugu.</p> <p>Haur batzuk hasi dira abestiaren letra zatiak abesten, hitz batzuk ezagunak dituztenez (Saioa mendia aipatzen da letran eta haurrak tutorearen izenarekin lotzen dute).</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETAK</b></p> <p>Ikusten da behin eta berriro errepikatuz eta keinuak sartuz haurrak poliki-poliki barneratzen hasi direla abestia.</p>			

BEHAKETA ORRIA			
Zenbakia: 10			
Behatutako Ikastetxea: Elorrioko Txintxirri Ikastola			
Data: 2016/04/27	Ordua: 11:45	Tokia: 5 urteko gela	Iraupena: 20 min
Ikasle taldea: 5 urteko gela	Zikloa: 2	Etapia: HH	Ikasturtea: 2015/2016
<p><b>BEHAKETAREN SINTESI DESKRIBATZAILEA</b></p> <p>Tutoreak “Euskal Herriko mendiak” abestia entzuteko CDa martxan jartzera zihoala, haurrek “Harri kozkor batekin” abestia dantzatu nahi zutela esan dute. Hortaz, tutoreak hori egingo genuela esan die eta lehenengo aldian txaloen bidez egin dugu dantza.</p> <p>Amaitu bezain pronto, tutoreak esan die itzaroteko, gauza berri bat egingo dugula abesti honekin eta alboko gelara joan eta egurrezko piezak ekartzen hasi da. Bakoitzari bi eman die eta azaldu beharrean, musika erreproduzitzen hasi bezain pronto egiten hasi da. Guztiok imitatu dute (azkenean txaloak beharrean piezak elkar jo behar zuten) eta esperientzia gustatu zaiela esan dute amaieran. Horregatik, berriro egin dugu.</p>			
<p><b>BEHAKETA EGIN ONDOREN SORTU DIREN GALDERA ETA HAUSNARKETA</b></p> <p>Irakaslearengan berrikuntzak egiten ari dela behatu daiteke. Betiko dantza txaloekin egin beharrean egunero erabiltzen dituzten piezei beste erabilera bat eman die eta haurrengan positiboki eragin die. Alde sortzailea duela ikusten da eta hori oso baliagarria izan daiteke berriztatzerako orduan.</p>			

### 3. Eranskina: Balorazioa taula

Balorazio taula
<p><b>Nire planteamendua:</b></p> <p>Jardueren sekuentziazioa, musikak barnean hartzen duen lau hezkuntzen araberakoa izan da. Lehena, entzumena izango litzateke, hainbat artikulutan irakurri bezala, oinarrizkoa entzutea da. Ondoren, musika barneratu ostean, produzitu egin behar da eta horretarako hiru bide (beste hiru hizkuntzak) erabiltzea erabaki nuen. Alde batetik, ahotsa, abesti bat ikasiz, bestetik instrumentuak, sortuz eta eskura daudenak ezagutzuz eta azkenik, gorputz mugimendua, dantzaren bidez abestiaren atalak adierazi genituenak.</p> <p>Atal bakoitzetik, hainbat jarduera egin dira. Oinarrizko kontzeptuak finkatzeko, atal desberdinetan behin eta berriro errepikatu ditugunak.</p> <p>Jardueretan erabilitako materiala eskuragarri zeudenak izan dira. Alde batetik, Ikastolan aurki ditzakegun instrumentuak (txintxinak, klabeak, kutxa txinatarra, teklatura, panderoa, triangelua...); bestetik, etxean aurki ditzakegun instrumentuak (txirula, tinbala, bongoa, gitarra, musika kutxa, zapmoña) eta materialak kotidiafononetzako (kartoiak, txapak, arroza, jogurt poteak); gure gorputzak eskaintzen dituen soinu desberdinak ere oso baliagarriak izan dira.</p> <p>Azken egunean, haurren iritzia jakin nahian, ea orain arte nik egindako jarduerak (musikaren ingurukoak) gustatu zaien galdetu nien. Erantzun onak jaso nituen, orokorrean haur gehienek gustatu zaie egindako jardueraren bat. Kontzeptuak (soinuaren ezaugarriak) barneratu diren galdetu nien, nik keinuak eginez eta beraiek erantzunez. Ikusi nuen barneratu zutela egindakoa hortaz positibotzat jotzen dut egindako proiektua.</p>
<p><b>Gaiarekiko lotura</b></p> <p>Momentuan lantzen zeuden gaia “Horrelakoa naiz” izanda eta proiektuaren nondik norakoak ikusita, gorputza ezagutzeko beste modu bat sortu nahi izan nuen. Horretarako, marko teorikoan azaldu bezala, lau eremutan banatu nuen musikarekiko hezkuntzak eta hauek kontuan izanda, <i>sekuentzia</i> bat garatu nuen:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Entzumena: gure gorputzaren zentzumen bat entzumena izanik hori lantzeko jarduera desberdinak proposatu nituen, bide batez, soinuaren ezaugarriak landu nituen (altuera, tinbrea, intentsitatea eta iraupena).</li> <li>2. Ahotsa: gure gorputza instrumentu bat dela kontuan izanik, lehenengo gure ahotsa ezagutzen dugun jakin nahi izan nuen, azkenean “horrelakoa naiz” proiektuarekin lotura eginez eta ahotsa ezagutzeko beste elementu bat izateko.</li> </ol>

3. Instrumentuak: Betiko instrumentuez gain, lehen aipatu bezala gure gorputza instrumentu bat dela kontuan izanda, hori erritmoak lantzeko ere erabili izan dugu (berriro ere proiektuarekin lotura eginez). Gainera, instrumentuak sortu genituen egunerokotasuneko materialekin.
4. Gorputz mugimendua: gaiarekin lotura zuzena izanik, Jambo abestia oinarritzat harturik koreografia bat sortu nuen. Dantzarekin, bakoitzaren mugimendu gaitasunak ikusteko aukera ematen du, norberaren gorputza ezagutzuz.

Hasiera batean, proiektuarekin lotutako jarduerak egin nituen, baina haurrak gurasoen aurrean egiteko ikuskizun bat egitea proposatu zuten eta aurrera eraman genuen. Hortaz, sekuentzia eta jarduera horiek, proiektu txiki baten bilakatu zen "Jambo!" izeneko.

Aipatu beharra dago, landu zen hurrengo gaia "Udaberria" izan zela eta horretarako ere, beste errekurtsio bat landu nuela, musikograma. Antonio Vivaldiren Lau urtaroretatik "Udaberria" atala hartu eta honen bidez, obraren egitura aztertu genuela.

**Galdeketa objektiboa:** Gelako tutoreari egindako elkarrizketa objektiboa

2016/04/27an

1. *Jaso al duzu tresna edo baliabiderik musikaren inguruan gero zuek aplikatzeko?*

Egia esanda bai, gauza asko ikasi ditugu. Pista asko jaso ditugu musikaren inguruan, azkenean ez da soilik abestea edo dantza egin baizik eta erritmoak landu, soinu desberdinak identifikatu eta ezagutu. Pixka bat abanikoa zabaldu egin zaigu, adibidez, nik ez nukeela musika arloan sartuko, orain badakit musika arloarekin loturak egin.

2. *Ikusi ahal duzu musikaren ekarpena "horrelakoa naiz" proiektuan? Hau da, loturarik ikusten duzu "horrelakoa naiz" proiektua eta guk sortutako "Jambo" proiektua?*

Bai, egia esanda gorputza lantzen egon garen heinean, gure gorputza zelakoa den kanpotik ikasi dugu, fisikoki neurtuta, baina gero entzumena landu izan dugu, entzumenaz gain, erritmoak, soinuak, ahotsak... Egia esan, loturak gaur egun edozein gaiekin egin daitekeela; nahi izanez gero, beti lotu ahal ditugula adartxoak loturak egiteko. Azkenean, gaur egun umeen interesetatik abiatuta gure gaiarekin loturak egin ditzakegu edo nahi dugun gaiarekin.

Haur Hezkuntzan ez da hain zaila loturak egitea edo curriculumarekin ez dugu horrelako lotura zuzenik. Azkenean, 0-6 bada arlo bat irekia dena eta ez dela derrigorrezko hezkuntza, orduan zuk askatasun gehiago izan dezakezu loturak egiteko.

3. *Erabilgarritasunik ikusi ahal diozu etorkizunera begira?*

Bai, erabilitako gauza hauek balio izango digu beste gai batzuk lantzeko eta bideratzeko.

<p><b>Haurren balorazioa, galderen bidez:</b></p> <p>1. <i>Gustatu al zaizue musikaren inguruan egindako jarduerak?</i></p> <p>Bai: 18</p> <p>Ez: 1</p> <p>2. <i>Polita iruditu zaizue Jambo! ikuskizuna?</i></p> <p>Bai: 19</p> <p>Ez: 0</p> <p>3. <i>Musika, abestea bakarrik da?</i></p> <p>Bai: 0</p> <p>Ez: 19</p> <p>4. <i>Zer da orduan?</i></p> <p>Dantza egitea, instrumentuak jo, musika entzun eta marraztu...</p> <p>5. <i>Zein da gehien gustatu zaizuen jarduera?</i></p> <p>Musika kutxa eta txintxirriak: 12</p> <p>Musikograma: 5</p> <p>Instrumentuak sortu: 2</p>
--

**4. Eranskina:** Jardueren taulak

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 1	
DATAK: 2016/02/18	
Hasiera: 10:00	Amaiera: 10:45
Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.	
Arloa/eremua: Musika, <b>entzumenaren</b> arloa, <i>soinu-iturria</i> azpiatala.	
Esku-hartzearen azalpena:	
<i>Prestaketa-aldia:</i>	
Helburuak:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Soinu iturria bereiztea.</li> <li>○ Entzuteko jarrera izatea.</li> </ul>	

Edukiak:

- Soinu-iturria bereiztea.

Metodologiari dagokionez, esplorazioa izango da erabilitakoa.

Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein jarduera honetakoak lortu diren behatuko ditut.

*Burutze-fasea:*

Lehenengo jarduera “non dago kutxa” izena du eta soinu-iturriaren kontzeptua barneratzeko balio izan dit. Haurrak borobilean daudelarik, jolasa azaldu diet eta baita ondo jolasteko pista bat. Azalpena honelakoa izan da: hasiera bezala galdera batzuk egin dizkiet, ikusten duzue kutxa hau? Zein kutxa mota izango da? Haur batzuek asmatu egin dute musika-kutxa bat zela eta esan diet ea barneko musika entzun nahi zuten. Baietza entzutean isiltzeko esan diet eta kutxa zabaldu dut.

Denboratxo txiki batean entzun ostean, jolas bat egingo dugun galdetu diet eta esan diet kutxa gorde egingo dudala eta beraiek aurkitu egin behar dutela. Baina horretarako, oso isilik ibili beharko direla gomendatu diet, ondo entzun dezaten. Nik pentsatuta nuen haurrek beraien begiak ixteko baina tutoreak esan dit hobe dela kanpora ateratzea, “tranposo” batzuk direlako. Orduan, haur guztiak gelatik atera ditut eta musika-kutxa gelako leku batean ezkutatu dut martxan jarrita. Ondoren haurrak gelara sartu dira, zarata eta beraz, denboratxo bat kostatu zaie aurkitzea.

Hurrei asko gustatu zaienez, berriro egin dugu, eta tutoreak kutxa non gorde gomendatu dit (alboko gelako irakaslearen eserleku azpian, kutxa baten azpian). Horrela beste bitan jolastu dugu, baita patio ostean ere.

Bigarren jarduera, “txintzarrien bila” jarduera izan da eta aurrekoaren kontzeptu bera lantzeko balio du. Aurreko jarduera amaituta, berriro lurrean eseri eta jarduera azaldu diet umeei. Zutik ipinita, begiak itxi behar dituztela esan diet eta neuk ditudan txintxinak (erakutsi eta soinua atera) bilatu behar dituztela esan diet. Lehenengo aldiak ez da oso ondo irten, begiak erdi zabalik izan dituztelako eta ni hitz egiten nengoenez erraz aurkitu naute. Beraz, begiak amantalarrekin estaltzea hobe dela esan dit tutoreak eta horrela egin dugu. Orduan benetan ez dutela ikusi eta berriro egin dugu, nire bila gerturatu direnean, tutorea isilik hurbildu eta txintxirrinak kendu dizkit. Berak mugitzen jarraitu ditu gelaren beste aldean eta haurrak apur bat distraitu ditugu.

Beste behin egin dugu begiak ixtearen jolasa eta azkenean amaitutzat eman dut nire esku-hartzea. Horretarako, borobilean eseri eta hurrei galdetu diet eta gustatu zaien, gustura egon diren e.a. Orokorrean haurren partetik balorazio positiboa jaso dut jarduera hauetan.

Autoebaluazioa:

Aspektu positibo bezala, uste dut oso jarduera egokia izan dela helburua lortzeko. Gainera, aurren gustukoa izan dela ikusi dut behin eta berriro eskatu diatelako. Alde positibo gisa ikusten dut tutoreak jardueran parte hartzea eta gomendioak ematea (kutxa ezkutatzearena eta amantalena).

Alde negatibo bezala, begiak ixtean denbora asko galdu dugula eta haur batzuek amantala kendu egin dutela izan da. Aipatzeko beste arlo bat, haur batzuk haserre sentitu direla izan da. Beraiek aurkitzeko asmoarekin lehenak sartu dira arrapaladan eta atera duten zaratarekin ez dute entzun musika, aldiz beste batzuk isilean sartu direnez topatu dute. Hori ikusirik, jarduera amaierako berbaldian esan dut truku erraz

bat ezagutzen dudala kutxa aurkitzeko, eta zein den? Ba isil isilik sartzea. Horregatik, hurrengo egun batean jarduera errepikatu nahi badute, hasieran truku hori nabarmenduko dut.

Tutorearen oharrak eta O.E.  
 Klase ordua amaitu ostean, tutoreari iritzia eskatu diot. Esan dit jarduera asko gustatu zaiola eta oso ondo ikusi didala, hala ere, hobetzeko alde batzuk ikusi dituela, adibidez, begiak ixtearena lehenago prestatu beharko zela zapi batzuekin estaltzeko.

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 2	
DATAK: 2016/02/18	
Hasiera: 11:40	Amaiera: 12:05
Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.	
Arloa/eremua: Musika, <b>entzumenaren</b> arloa, <i>altuera eta intentsitatea</i> azpiatala.	
Esku-hartzearen azalpena:	
<i>Prestaketa-aldia:</i>	
Helburuak:	
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Entzuteko jarrera.</li> <li>○ Soinuaren parametroak bereiztea.</li> </ul>	
Edukiak	
<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarritzko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (altua/ baxua).</li> </ul>	
Metodologiari dagokionez, esploratzekoa izango da.	
Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein jarduera honetakoak lortu diren behatuko dut.	
<i>Burutze-fasea:</i>	
<p>Patio ostean, entzumenaren bidez soinuaren parametro bat, zehazki altuera, bereizteko jarduera prestatu dut. Horretarako, haurrak patioan zeuden bitartean, musika gelara joan naiz eta altuerak bereizteko instrumentu bila egon naiz, eta honako biak aukeratu ditut: txintxina eta panderoa. Bien arteko altuera oso nabaria denez egokiak ikusi ditut lehenengo aldiz parametro hori bereizteko.</p> <p>Klasera sartuta, haurrak lurrean eserarazi ditut, nire tutorea eta ni arbel ondoan eseri gara aulki bietan (haur guztien begi bistara egotea komeni delako). Hasiera emateko, hurrei instrumentuei buruz zer dakiten galdetu diet eta jasotako erantzunak anitzak izan dira. Ikusirik nik aukeratutako instrumentuak ez dituztela aipatu, txintxinak erakutsi dizkiet eta galdetu diet ea badakiten zein instrumentu duten eta zein soinu aterako duten. Erantzunak eskasak izan dira, (batez ere, intentsitateari erreparatu diote, panderoa intentsitate handikoa delako, txintxinekin alderatuta, beraz atal hori ondo azaldu dut, altuerak intentsitatearekin ez dela nahastu behar) soinuaren galdera gehiago zehaztu dut "DINDIN" (zorrotza) edo "BOMBOM" (grabea) egiten duten. Denetarik esan dutenez, froga egingo dugun galdetu diet eta txintxinak elkarren aurka kolpatu ditut. Orduan soinu zorrotza egiten</p>	



dutela entzun dute. Txintxinak erabili nahi zituztenez, banan-banan probatu dituzte.

Guztiak probatuta, panderoarekin berdina egin dut, eta soinu grabea duela entzun ahal izan dute. Hori eginda, jolas bat proposatu diet, beraiek soinu zorrotza entzutean jaiki eta besoak igo behar dituzte eta grabea denean alderantziz, eseri eta besoak jaitsi. Baina azkenean ez dugu burutu.

Autoebaluazioa:

Espero bezain ondo joan da. Hasieran haur batzuek ez dituzte ondo desberdindu altuerak, izan ere, beraiantzat altuera eta intentsitatea nahastea oso erraza da. Hau da, zorrotza edo grabea den fuerte edo suabe jotzearekin erlazionatuta dago. Horregatik panderoa fuerte zein suabe jo dut eta hor ikusi dute grabea izateak ez duela altuerarekin zer ikusirik.

Hurrengo egunetan beste ekintza batzuetan altuera bereiztea eskatzen diedanean uste dut argi geratuko zaiela eskuak jaso behar duten edo jaitsi.

Orokorrean oso gustura sentitu naiz jarduera hau egiten.

Tutorearen oharrak eta O.E.

Tutoreari oso ideia ona iruditu zaio haurrak ezaugarri bi hauek bereizten ikastea. Gainera, ia gehienak hasieratik bereizi dituztenez tutorea ere harrিতuta eta pozik geratu da.

Gomendio bezala, beste batean beste instrumentu batzuekin altueraren inguruko galderak egiteko esan dit, horrela ezaugarri hori gehiago bereiziko dutelako. Nik baietz esan diot, nire asmoa hasieran entzumenarekin bereizten hastea dela eta gero ahotsa zein instrumentuekin lantzea izango dela.

### Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 3

DATAK: 2016/02/19

Hasiera: 11:45

Amaiera: 12:15

Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.

Arloa/eremua: Musika, **entzumenaren** arloa, *altuera, iraupena eta tinbrea* azpiatala.

Esku-hartzearen azalpena:

*Prestaketa-aldia:*

Helburuak:

- Entzuteko jarrera.
- Soinuaren parametroak bereiztea (altuera eta tinbrea.)

Edukiak:

- Soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarritzko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (altua/ baxua).

Metodologiari dagokionez, esplorazioan oinarrituta egongo da.

Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein jarduera honetakoak lortu diren behatuko dut.

<p><i>Burutze-fasea:</i></p> <p>Patio ostean, aurreko egunean landutako parametroa ondo finkatu ez zela ikusirik, berriro errepikatu dut baina instrumentu bat gehituz, triangelua. Ekintza honetan, altuera zein tinbrea bereiztea izango da helburua. Hala ere, iraupena ere landu da.</p> <p>Klasera sartuta, haurrak lurrean eseri ditut, nire tutorea eta ni arbel ondoan eseri gara aulki bietan (haur guztien begi bistara egotea komeni delako). Hasiera emateko, atzoko jardueraz galdetu diet, eta ea instrumentuen izenaz gogoratzen diren galdetu diet. Erantzunak baiezkoak izan direnean, beraien altueraz galdetu diet eta erantzunak erdizkakoak izan direnez, berriro azaldu dut. Ondoren, triangelua erakutsi diet eta honengatik galdetu dut. Guztiek ondo erantzun arren, soinua galdetu ostean apur bat nahastu egin direnez, kolpatu eta soinu zorrotza duela entzun dute. Banan-banan probatu ostean, jolas bat proposatu die: begiak itxi eta nik instrumentu bat joko dut eta beraiek asmatu egin behar dute. Honekin, tinbreak bereizten hasiko dira.</p>
<p><i>Autoebaluazioa:</i></p> <p>Jarduera honen alde positibo bat, aurreko egunean egindakoa espero nuena baino gehiago finkatu zela da eta honen bidez guztiz finkatuta geratu dela uste dut. Honetaz gain, ekintza honen bidez soinuaren parametro bi lantzeko aukera eman dit eta bata poliki-poliki instrumentu gehiago ezagutzea.</p> <p>Negatibo bezala, edo kontuan hartzekoa, hurrengorako instrumentu gehiago erabiltzea izango litzateke, hiru hauekin oso erraz egin dugulako jolasa eta ez duelako aukera anitzik ematen. Horregatik, hurrengo jarduerarako klabeak eta txirula ere erabiliko ditut, agian kutxa txinatarra ere, baina alde aurretik frogatu egingo dut bereizteko errazak diren edo ez jakiteko.</p>
<p><i>Tutorearen oharrak eta O.E.</i></p> <p>Tutoreak, instrumentu gehiago erabiltzea gomendatu dit, aukeratu ditudanak bereizteko nahiko errazak zirelako nahiz eta triangelua eta txintxinak soinu antzerakoak izan.</p>

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 4	
DATAK: 2016/03/1	
Hasiera: 10:00	Amaiera: 11:00
Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.	
Arloa/eremua: Musika, <b>ahotsaren</b> arloa.	
Esku-hartzearen azalpena:	
Musika arloarekin jarraituz eta entzumena inoiz alde batera utziz ahotsaren lanketarekin hasi naiz. Jarduera nagusia, Siyahamba abestia ikastea izango da eta horren inguruan beste hainbat ekintza prestatu (instrumentuak sortu eta	

akonpainamendua egin, dantza edo gorputz mugimendua zein perkusioa sortu...).

Abestiaren letra hau da:

*Siyahamba, ekukanyen' kwenkos',  
Siyahamba, ekukanyen' kwenkos',  
Siyahamba, ekukanyen' kwenkos',  
Siyahamba, ekukanyen' kwenkos',  
Siyahamba, siyahamba, oh,  
Siyahamba ekukanyen' kwenkos'.  
Siyahamba, siyahamba, oh,  
Siyahamba ekukanyen' kwenkos*

*Prestaketa-aldia:*

Abestia ikasten hasi aurretik, ahotsarekin esploratzeko jolas txiki batzuk egingo ditut eta ondoren abestia irakasten hasiko naiz. Horretarako, lehenengo hainbat atal zehaztu ditut, hala nola helburuak, edukiak, metodologia, jarduerak eta ebaluazio irizpideak.

Helburuak:

- Memoria lantzea.
- Ahotsa esploratzea.
- Kultura desberdinetako abestiak ezagutzea.

Edukiak:

- Ahotsaren ezaugarriak bereiztea.
- Besteen ahotsa ezagutzea.
- Abesti baten interpretazioa.
- Kultura desberdinetako abestiak interpretatzea.

Metodologia nagusia jolasa izango da, baita errepikapenean oinarritutako ikaskuntza, izan ere, abestia ikasteko modu anitz daude baina abestiaren letra afrikarra denez, trabatutako hitzak soilik banandu ditut, bestela behin eta berriro abestuz ikasiko dugu.

Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein zehatzak bete diren izango da.

*Burutze-fasea:*

Atal berriari sarrera emateko, guztiak beraien lekuetan eserita zeudenean galdera bat egin diet haurrei: "Zuek elkar ezagutzen zarete ezta? Ikusiz gero, agurtzen zarete... hau da, begi bistaz ezagutzen zarete, baina... besteen ahotsa errekonozitzeko gai zarete? Adibidez, begiak itxiz gero eta norbaitek hitz eginez gero, ezagutuko zenuten nor den?". Guztiak baietz esan dutenez frogatu egingo dugula esan diet. Makinista niregana hurbildu eta jolasa azaldu diet: nirekin zutunik dagoen pertsonak niri begira ipini eta begiak itxi behar ditu, orduan nik behatzarekin pertsona bat seinalatuko dut eta pertsona horrek nahi duena esan dezake, bere izena izan ezik. Zutik dagoen haurrak asmatu egin behar du nor den berba egin duena, eta ondoren seinalatutako ikaslea izango da begiak itxiko dituen. Ulertu dutela ikusita, jolasean hasi gara.

Guztiak parte hartu ostean, esertzeko esan diet eta ea ahotsarekin zer egiten dugun

galdetu diet, erantzunak anitzak izanik: abestu, hitz egin, jolastu... Orduan nik esan diet abesti bat ikasi dezakegula, ondoren sortutako instrumentuekin akonpainamendua egiteko. Abestiaren izenburua esan diet, "SIYAHAMBA" eta ea nongo abestia iruditzen zaien galdetu diet. Ez dudanez erantzun zuzenik aurkitu, Afrikako askatasun abestia zela azaldu diet.

Abestia ikasteko, lehenengo nik bakarrik abestu dut abesti osoa txaloekin pultsoa jarraituz. Ondoren hitzez hitz abesten joan naiz poliki-poliki ideia hartu arte.

Autoebaluazioa:

Entzumenaren jolasa espero nuen bezala irten da, guztiek asmatu dute bestearen ahotsa. Agian puntu ahul bezala, jolasean geunden bitartean haur bat hitz egiten egon eta entzumenaren eragotzi duela izan daiteke. Beste puntu bat hurrengo batean kontuan hartzeko, hitz egin behar zutenen ordena izan da, zain zeudenak urduri eta ezinegona zutelako.

Siyahamba abestia irakasteko metodologia uste dut ona izan dela baina abesti honen zaitasuna letra ez ulertzearena da, hortaz, zailtasun handiagoak daude ikasteko. Hala ere, behin eta berriro errepikatuz, haurrak badoaz ikasten.

Tutorearen oharrak eta O.E.

Entzumenaren jolasa asko gustatu zaio. Egokia ikusi du ahotsarekin lanean hasi aurretik esplorazio bezala.

Abestiari buruz komentatu dit hitz aldetik zaila dela baina mugimendua eta perkusioa sartu ahala errazago ikasiko dutela eta ez larritzeko.

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 5

DATAK: 2016/03/2

Hasiera: 10:00

Amaiera: 10:30

Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.

Arloa/eremua: Musika, **ahotsaren** eremua

Esku-hartzearen azalpena:

*Prestaketa-aldia:*

Ahotsa eremuan helburu nagusia abestia ikastea denez, bigarren egun honetarako abestiaren grabaketa ekarri dut.

Helburuak:

- Memoria lantzea.
- Ahotsa esploratzea.
- Kultura desberdinetako abestiak ezagutzea.

Edukiak:

- Entzumenaren bidez imitazioa.
- Abesti baten interpretazioa.
- Kultura desberdinetako abestiak interpretatzea.

Metodologiari dagokionez, imitazioa izango da gehien erabiliko duguna, errepikapenaren bidez.



**Burutze-fasea:**

Gorputza ezagutzeko asmotan, erritmo batzuk egingo dugula esan diot tutoreari. Horretarako, guztiok borobilean jarri gara eta imitazioaren bidez, ni pultsoa markatzen hasi naiz. Ondoren, txalo bikoitzak sartu ditut pultso bakoitzean. Guztiok barneratuta zutela ikustean, zutitzeko eskatu diet, eta oinekin gauza bera egin dugu. Poliki-poliki, esku eta oinen arteko konbinazioak eratu ditugu. Gero, beraiei proposamenak egiteko esan diet, eta guztiok errepikatu ditugu.

**Autoebaluazioa:**

Pultsoa txalo bat zenean errazago eraman dute, gero bikoitza izan denean hasieran kostatu egin zait guztiak batera txalokatzea. Baina denboratxo bat jarraituz, azkenean guztiok batera elkarrekin jo dugu.

Beraiei proposatzeko esan diedanean, apur bat galdu egin dira, ez dute oso ondo ulertu zer egin behar zuten baina ikaskide bat harrotu eta beste batzuekin jolasean hasi da. Orduan amaitutzat eman dugu esku-hartzea.

**Tutorearen oharrak eta O.E.**

Esan dit teorian oso polita izaten dela beraiek nahi dutena egiten baina gero errealtatean gatazkak sortzen direla esan dit. Orduan, askatasuna utzi behar zaie baina gero estrategia egokiak erabili behar dira askatasun hori mozteko.

**Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 7**

DATAK: 2016/03/3

Hasiera: 09:00

Amaiera: 10:00

Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.

Arloa/eremua: Musika, **Instrumentuak** arloa, *kotidiafonoen* azpiatala.

Esku-hartzearen azalpena:

**Prestaketa-aldia:**

Helburuak:

- Sormena lantzea.
- Eguneroko materialak erabiliz instrumentuak sortzea.

Edukiak:

- Ingurunean dauden objektuak eta materiak, haien funtzioak eta eguneroko erabilerak aztertzea.
- Ekoizpen artistikoko talde-proiektuetan parte hartzeko ekimena eta interesa izatea.

Metodologiari dagokionez, esplorazioa izango da nagusia. Izan ere, haurrek material desberdinak arakatuko dituzte soinuak eta sorkuntza prozesua hasiko da.

Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein jardura honetakoak lortu diren behatuko dut.

<p><i>Burutze-fasea:</i></p> <p>Atal honetan kotidiafonoan sortu behar dituztenez, aurreko egunean nik egindako hiru aurkeztu nituen eta guztien artean bi aukeratu genituen: kaskainetak eta marakak. Horregatik, gaurko egunean kaskainetak egiten hasi gara. Horretarako, aurreko egunetan txapak, jogurt poteak eta kartoia ekartzeko eskatu nien hurrei. Neuk ere, etxetik kartoiak moztuta ekarri nituen laukizuzen formakoak.</p> <p>Taldeka (4 pertsonakoak), margotegi txokora joan gara eta tenperak prestatu ditugu, ziprintin teknika erabili nahi zutela suposatuz, etxeko hortzetako eskuila ekarri dut. Haur bakoitzaren kartoian izena idatzi eta beste alde marrazteko esan diet, nahi duten bezala. Batzuek pintzela erabili dute, beste batzuk ziprintintzeko teknika, beste batzuek lastotxo baten bidez putz eginez marraztu dute beraien kartoia... argazkietan ikus daitekeen bezala.</p> <p>Lau pertsonako hiru talde egon dira marrazten, beraz, 12 pertsonak egin dituzte egun honetan kaskainetak.</p>
<p>Autoebaluazioa:</p> <p>Haurrak oso gustura egon dira margotzen, asko gustatu zaie ziprintintzearen teknika. Guztiak txapak noiz ipiniko diogun galdetzen egon dira, oso pozik daudelako kaskainetak egiten.</p> <p>Putz egitearen teknika tutoreak proposatu dit eta batzuek hasi dira puzten baina ez zaie asko gustatu emaitza eta pintzelarekin marrazten jarraitu dute.</p>
<p>Tutorearen oharrak eta O.E.</p> <p>Klase ordua amaitu ostean, tutoreari iritzia eskatu diot. Esan dit jarduera asko gustatu zaiola eta oso ondo ikusi didala.</p>

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 8	
DATAK: 2016/03/04	
Hasiera: 15:00	Amaiera: 16:00
Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.	
Arloa/eremua: Musika, <b>instrumentuen</b> arloa, <i>kotidiafonoak</i> azpiatala.	
Esku-hartzearen azalpena:	
<i>Prestaketa-aldia:</i> (aurreko eguneko jarraipena da, beraz berdina izan da)	
Aurrekoaren jarraipena denez, helburu, eduki, metodologia eta ebaluazioa berdina da.	
<i>Burutze-fasea:</i>	
20 ikasle direnez bost urteko gelan, oraindik beste zortzi falta dira kaskainetak egiteko. Bigarren esku-hartze hau, bestearen berdina izan da, baina beste ikasle batzuekin eta gutxiagorekin, zehazki 6 hurrek egin dituzte. Talde honetan bereizitasuna ziprintintze teknika ez dela horrenbeste erabili izan da. Batzuek atzamarrak erabili dituzte baina gehienak pintzelak.	







<p>guztiek erantzun dute ongi, argi ikusten delako sokazkoa dela. Gitarra jotzeko eskatu didate baina ez dakidala esan diet, ikasten hasi behar nintzela baina ikasketak zirela eta ezin izan nintzela azaldu dut. Tutoreak momentu horretan galdetu dit ea zein instrumentu jotzen dudan eta pianoa zela esatean, musika gelan teklatura dagoela esan dit beraz libre balego bertaratu eta ea jo dezakedan galdetu dit. Nire baietza jasota, ordutegia begiratzera joan den bitartean, haurrak lerroan ipini ditut gitarra jotzeko.</p> <p>Libre zegoela esan didanean, gora igo gara eta teklatura entxufatu dut. Teklatura zein motatako instrumentua den galdetu dudanean, harizkoa dela esan didate baina nik ezetz esan diet, teklatura elektrikoa dela beraz argi indarra dela soinua sortzen duen iturria, pianoa berriz, harizkoa dela azaldu diet sokak dituela eta mailuka txikiakin sokak kolpatzean soinua sortzen delako. Pianoan abesti bat jo ostean, ilaran jarri eta haurrak izan dira teklatura probatu dutenak.</p> <p>Argazkiak ikus daiteke haurrak pianoa probatzen.</p>
<p>Autoebaluazioa:</p> <p>Alde positibo bezala, lehenengo esku-hartzeetan landutako edukiak (soinuaren ezaugarriak) barneratuta izatea izan da. Hau da, nik esandakoa baliagarria egin zaiela eta gogoratzen dutela ikusi dut.</p> <p>Honetaz gain, beste informazioa gehiago berreskuratzeko jarduera izan da, hau da, instrumentu moten ingurukoa. Nolakoa den galdetzean, orain badakite ea sokazkoa edo haizezkoa den.</p> <p>Hainbat jarduera egin ditut onez gero musikaren inguruan eta ikusi dut gai honi buruz geroz eta informazio gehiago eskuratzen daudela haurrak. Oso gustura sentitzen nago esku-hartze hauek egiten.</p>
<p>Tutorearen oharrak eta O.E.</p> <p>Klase ordua amaitu ostean, tutoreari iritzia eskatu diot. Esan dit jarduera asko gustatu zaiola eta oso ondo ikusi didala, haurrak kontzeptuak barneratzen daude eta hori seinale ona dela goraipatu dit.</p>

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 11	
DATAK: 2016/03/9	
Hasiera: 14:30	Amaiera: 15:30
Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.	
Arloa/eremua: Musika, <b>Instrumentuen</b> arloa, <i>kotidiafonoen</i> azpiatala.	
Esku-hartzearen azalpena:	
<i>Prestaketa-aldia:</i>	
Jogurt pote eta txapa nahikoa lortu dugunez kaskainetak amaitu eta marakekin hasiko garela proposatu diot tutoreari.	



**Edukiak:**

- Soinuen zenbait ezaugarri bereizgarri eta oinarrizko kontraste entzumenaren bitartez bereiztea (zarata/isiltasuna, luzea/motza, gogorra/leuna, altua/ baxua).
- Musika-tresnen soinu-aukerak aztertzea.

Metodologiari dagokionez, esplorazioan oinarritutako metodologia izango da.

Ebaluazioari dagokionez, helburu orokorrak zein jarduera honetakoak lortu diren behatuko dut.

**Burutze-fasea:**

Lehenengo, azalpena eman diet, aurreko egunean ezin izan genuenez instrumentuak probatu, oraingoan utzi egingo niela baina lehenengo arau bi erreparatu ditut: nik hitz egiten dudanean isiltasuna mantentzea eta entzutea, beraiek hitz egiten dutenean besteok egiten dugun bezala; eta bigarrena, instrumentuak ondo zaintzea.

Hori esanda esku-hartzearekin hasi naiz. Hasteko, instrumentuak aurkeztu ditut ea ezagutzen duten, zein soinu aterako duen e.a. galdetuz. Baita ea notak jo daitezkeen edo ez, hau da, altuera bakarrekoak diren edo ez. Batzuek musika eskolatik ezagutzen dutenez zuzen erantzun dute.

Behin instrumentu guztiak aurkeztuta, botilofonoa aurkeztu dut. Hori, nik asmatutako izena da, eta kristalezko botilez osatutako instrumentua da, non ur kantitate desberdinak sartuz gero eta zerbaitez kopatuz gero altuera desberdinak entzun ahal diren.

Botilak ur kantitate desberdinez bete dut eta triangeluaren metalezko makilarekin jo dut altuerak bereizten direla entzuteko. Haurrei galdetu diet eta egurrezko makil batez joko bagenu zein soinu egingo genuen, eta hipotesi horiek frogatu ditugu. Ondoren, haur batek galdetu du ea putz eginez gero soinua ere aldatuko den, eta ideia hori ere frogatu dugu.

Froga guztiak egin ostean, haurrei instrumentu guztiak probatzen utzi diet ilaran jarritz.

**Autoebaluazioa:**

Nahiko gustura sentitu naiz, apur bat kaosa izan da probatzerako orduan, ilaran jarri arren batzuek ez dute errespetatu eta besteak haserretu egin dira. Horregatik, bigarren araua gogorarazi dut, non instrumentuak kontu handiz erabili behar diren ez apurtzeko.

Orokorrean uste dut haurrak gustura sentitu direla, hausnarketa edo pentsatzeko galderak sortu direla eta helburuak bete direla.

**Tutorearen oharrak eta O.E.**

Aipatu didan bakarra instrumentuak frogatzerako momentua apur bat kaotikoa izan dela. Hobe zela instrumentuak pasatzea batetik bestera, berdin-berdin haserreak egongo ziren batzuk denbora gehiago egon direlako beste batzuk baino baina horrela txandak errazago errespetatzen dituztela komentatu dit.



Tutorearen oharrak eta O.E.

Horrelako egoerak askotan gertatzen dira eta erabilitako estrategiak erabilgarriak izan direla esan dit. Hala ere, lan gehiago egin beharko dugula esan dit, erritmoak ondo irteteko.

Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 14

DATAK: 2016/03/16 eta 17

Hasiera: 11:30

Amaiera: 12:00

Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.

Arloa/eremua: Musika, **ahotsaren** arloa, (gorputz hezkuntzarekin lotura eginez)

Esku-hartzearen azalpena:

*Prestaketa-aldia:*

Proiektua azkenean gurasoen aurrean egingo den ekitaldi bat izango denez, Siyahamba abestiaz gain beste dantza bat asmatu behar dugula erabaki dugu tutoreak eta biok. Horregatik, aurreko egunetan musika desberdinak entzun eta azkenean YAMBO abestia aukeratu dugu dantzarako. Nik koreografia pentsatu dut haurrekin lantzeko.

Helburuak:

- Norberaren gorputza adierazpen gisa erabiltzea.

Edukiak:

- Norberaren gorputzaren mugak ezagutzea eta errespetatzea.

Metodologia, imitazioa izango da.

Ebaluazioa, helburu orokor zein zehatzak bete diren behatzea izango da.

*Burutze-fasea:*

Beste dantza bat ikasi behar dugula azaldu diet hurrei, horretarako 1,2,3,4 eta 5 zenbakiak esan diet. Bosteko taldeak egin ditut eta taldetxo hauek ilaran jarri dira, guztira ilara eratuz. 1,3 eta 5 zenbakiak eskua jasotzeko eskatu diet eta aldi berean salto bat egiteko beraien ezkerrera (nire eskumara). Ondoren beste salto bat egiteko lehengo lekura bueltatuz eta 2 eta 4 beste alderantz salto egiteko esan diet. Hainbat aldiz errepikatu ostean, nahiko ondo irteten zela ikusita, musika ipini eta nik gidatuz lehen estrofa egin dugu.

Bigarren estrofa lantzea erabaki dut bera bakarrik eta ondoren biak batera. Haurrak apur bat nahastu dira baina batzuek ondo jarraitu naute.

Nekatuta zeudela ikusta, Siyahamba abestia abestea erabaki dut, ea gusturago zeuden baina nekatuta zeudela esku-hartzea amaitutzat eman dut.

Autoebaluazioa:

Nire asmoa, haurrak beraien ekitaldiaren parte hartzaile osoak izatea da. Beraiek aukeratzea dantza, beraien sortzea instrumentuekin sarrera e.a. Baina ikusi dudak bezala, egun guztiak ez dira berdinak, guri gertatzen zaigun bezala.



Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 16	
<p>DATAK: 2016/04/8</p> <p>Hasiera: 11:45 <span style="float: right;">Amaiera: 12:15</span></p> <p>Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.</p>	
<p>Arloa/eremua: Hizkuntza- Gonbidapenak</p>	
<p>Esku-hartzearen azalpena:</p> <p><i>Prestaketa-aldia:</i></p> <p>Ikuskizunera gurasoak ikustera etortzeko ezinbestekoa da gonbidapena egitea, eta horretarako txantiloia prestatu dugu tutoreak eta nik.</p> <p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Haurren begi-esku koordinazioa lantzea.</li> <li>○ Idazmenerako hurbilketa.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Motrizitate fina garatzea.</li> </ul> <p>Metodologia, kopiatzean oinarrituko da</p> <p>Ebaluazioa, helburuak betetzea.</p> <p><i>Burutze-fasea:</i></p> <p>Lehenengo, tutoreak arbelean idatzi du txantiloiko “eguna, ordua eta lekua” eta bakoitzaren alboan, behar ziren datuak. Orduan, azaldu dut gure ikuskizunerako gonbidapenak egin behar ditugula eta horretarako kolore laranja zegoena kopiatu behar zutela eta guztia irakurri dut. Orduan, tutorea eta biok gonbidapen txantiloiak eta arkatzak banatu ditugu eta denbora librean utzi diegu kopiatzeko. Ni, laguntza behar duen haur batekin egon naiz diktatzen eta apur bat kopiatzeko bidean laguntzen (zailtasunak ditu arretarako).</p> <p>Amaitzean, bakoitzak bere gonbidapena eman dit gero arratsaldean banatu ahal izateko.</p>	
<p>Autoebaluazioa:</p> <p>Haurrak ondo egon dira, guztiak kopiatzen arreta behar zuten lasaitasuna nabaritu da gelan. Egia da, G hizkia ez dutela ezagutzen eta askok galdetu didate nola egiten den (6 baten antzekoa dela esan diet). Baina orokorrean primerako gonbidapenak egin dituzte, ulertterazak eta txukun.</p>	
<p>Tutorearen oharrak eta O.E.</p> <p>Tutorearen ustetan, oso aproposak izaten dira horrelako gonbidapenak, haurrak pozik egoten bait dira gurasoei erakusteko zerbait delako. Horregatik, arreta gehiagoz idazten dute eta gogo gehiagorekin aritzen direla lanean komentatu dit.</p>	
Ikasgelako ESKU-HARTZEEN fitxa 17	
<p>DATAK: 2016/04/27</p> <p>Hasiera: 10:00 <span style="float: right;">Amaiera: 10:45</span></p> <p>Ikasturtea, Taldea: 2015/2016 ikasturtea; 5 urteko gela.</p>	



<p>Arloa/eremua: Musika, <b>entzumena</b></p>
<p>Esku-hartzearen azalpena:</p> <p><i>Prestaketa-aldia:</i></p> <p>Azken esku-hartzea gai berriarekin lotutako zerbait egitea gustatuko litzaidakeela pentsatu nuen eta gaia udaberria izanik, A. Vivaldiren “lau urtaroak” hartu eta “Udaberria” atala lantzea nahi izan dut. Musikograma bat egitea aukera ona zela ikusita, aste bat lehenago nik egin nuen kartulina zati batean.</p> <p>Helburuak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Entzumenaren bidez obraren zati desberdinak bereiztea.(Egitura)</li> <li>○ Lotura egitea lantzen ari garen gaiarekin.</li> </ul> <p>Edukiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Musika obraren atalak bereiztea.</li> </ul> <p>Metodologia, imitazio eta askatasunean oinarrituko da, izan ere, hasieran musikograma jarraitzen imitazioa landuko dute eta ondoren askatasunean marraztuko dute.</p> <p>Ebaluazioa, helburuak bete diren izango da.</p> <p><i>Burutze-fasea:</i></p> <p>Haur guztiak beraien lekuetan eseri dira eta nik musika martxan ipini dut, poliki-poliki entzun dezaten. Ondoren, musikograma arbelean itsatsi dut eta nire gorputzaz tapatu dut eta lantzen ari garen gaiaren inguruan galderak egin ditut musikograman zeuden irudiak lotzeko asmotan. Gero, musikograma azaldu dut apur batean, autorea aipatuz eta obraren izena esanez. Musika martxan jarri eta entzun ahala behatzaz jarraitu dut. Behin egin ostean, bakoitzari fotokopia bat banatu diet (2. Eranskina) musika entzuten zuten bitartean eta berriro guztiok batera egingo genuela azalduz.</p> <p>Berriro guztiok batera egin dugu (galdu egiten naizenaren antzezpena egin dut eta beraietako batzuek non gauden esan didate; jarrera hori ebaluazio gisa erabili dut, ikusteko nork kasu egin didan)</p> <p>Amaitzeko, nahi zuten bezala margotzeko eskatu diet, nire eredia kendu dut norberaren irudimena bultzatzeko asmoz.</p>
<p>Autoebaluazioa:</p> <p>Jarduera hau oso gustura egin dut. Gainera konturatu naiz haur batzuek arretaz egon direla eta hori eskertzekoa izaten da, hau da, entzunaldi aktiboa egon da. Margotzen zuten bitartean musika entzuten egon gara egoera lasai bat bizitzeko eta nahiko baketsua izan da, hortaz estrategia horrek balio izan dit.</p>
<p>Tutorearen oharrak eta O.E.</p> <p>Jarduera polita dela esan dit, agian gehiagotan errepikatu beharko nukeela komentatu dit, batez ere, arreta gehiagoz egoteko haurrak. Baina denbora gainean zegoenez, behin errepikatuta ondo egon dela esan dit.</p>

## 5. Eranskina: Jardueren argazkiak

### Kotidiafonoak egiten:

#### 1. Kaskainetak: 2016/03/03-04



5. irudia: Kaskainetak sortzen.



6. irudia: Kaskainetak sortzen.



7. irudia: Kaskainetak sortzen.

#### 2. Marakak eta txapak itsasten: 2016/03/09



8. irudia: Txapak itsasten.



9. irudia: Marakak sortzen.



10. irudia: Marakak sortzen.



11. irudia: Marakak lehortzen.

**Instrumentuak probatzen: 2016/03/09-11**



12. irudia: teklatua probatzen.



13. irudia: Instrumentuak lantzen.

**Ikuskizunerako jantziak egiten: 2016/04/5-7**



14. irudia: Lepokoak egiten.




15. irudia: Lepokoak egiten.



16. irudia: Jantziak egiten.

**Ikuskizunerako**

**gonbidapenak egiten: 2016/04/8**




17. irudia: Ikuskizuneko gonbidapeneko informazioa.





18. irudia: Idatzitako gonbidapenak.

### Musikogramaren jarduera



19. irudia: Landutako musikograma.



20. irudia: musikograma jarraitzen.



21. irudia: musikograma margotzen.